

## ETXERAKO LANEI BURUZKO HAUSNARKETA ETA AKORDIOAK

- **Klasean bukatu ez dutena EZ DA etxerako lana**, baina etxean bukatu beharko dute.
- Etxerako lanak dira **ikasitakoa indartzeko, finkatzeko, arintasuna lortzeko, lanerako ohitura hartzeko eta autonomia lantzeko** bidaliko diren **zerbait extra**.
- Ez dira asko izango, baina **egunero** –edo ia egunero– eramango dute zertxobait.
- Azterketak dituzten egunetan **ez** dugu etxerako lanik bidaliko.
- **Gurasoen ardura** izango da, baita ere, ariketa mekanikoekin laguntzea. Hala nola: biderketa taulak, irakurketa, buruzko kalukulua...
- Etxerako lanak **laguntzarik gabe** egingo dituzte (1. zikloan izan ezik).
- Ziklo bakoitzak adostuko du gurasoei zer eskatu etxerako lanei aurre egiteko orduan. Eta Gurasoen Bileran azalduko da .
- 1. Zikloa: Matematika eta irakurketa.
- 2. Zikloa: Biderketa taulak eta mekanikoa dena.
- 3. Zikloa: Informazioa bilatzea, ohiturak hartzea eta autonomia lantzea.
- **Oporretan:**
- **2. Zikloa:**
- Udan: Orientabideak emango ditugu hala behar direla ikusten badugu.
- Besteetan: Derrigorrez landuko dira irakurmena, eragiketa mekanikoak eta buruketak.
- **3. Zikloa:**
- Udan: Irakurmena eta gomendio batzuk ere emango ditugu.
- Besteetan: Liburu bat irakurtzea.